Bergarako Udala

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

BERGARAKO UDALERAKO ETA UDAL EUSKALTEGIRAKO LANEKO MEDIKUNTZA ZERBITZUA

1- XEDEA

Lizitazio honen xedea da Bergarako Udalerako zein bere menpeko Bergarako Euskaltegirako LANEKO MEDIKUNTZAren espezialitatea kontratatzea, kanpoko prebentzio-zerbitzu baten bidez emateko.

Informazio gisara, Kontratatzailearen Profilean argitaratzen da, plegu hauekin batera, Udaleko zein Udal Euskaltegiko langileei dagokien informazioa.

2.- ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

Adjudikazio-hartzaileak laneko medikuntzako (osasun-zaintzako) espezialitatea egin beharko du, betiere honako lege eta errege-dekretu hauetan ezarritakoaren babespean: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (ondoren izan ditzakeen aldaketa eta garapen-arau guztiekin); 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudia onartzen duena; eta 843/2011 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen osasun-jarduera garatzeko baliabideak antolatzeari buruzko oinarrizko irizpideak ezartzen dituena.

Zerbitzua osasun zaintzako alor hauetan emango da: enpresan dauden lanpostuak; lanpostu bakoitzaren arriskuak; lanpostu bakoitza betetzen duen langilea; eta langile bakoitzari aplikatu beharreko protokolo espezifikoak, dagokion lanpostuaren arabera eta lanpostu horrek dauzkan lan arriskuen arabera (dagozkion probak barne).

Kontuan hartuko da sexuen araberako datuen desagregazioa, lan-arloko segregazio horizontala eta bertikala, eta, kasuan kasu, genero-adierazleak sartuko ditu. Genero adierazleez gain, bestelako aldagaiak ere sartu beharko dira (adina, jatorria, aniztasun funtzionala…).

Esleipendun suertatzen den erakundeak laneko medikuntzaren PLANGINTZA eta PROGRAMA aurkeztu beharko ditu, langileen osasuna zaintzeari dagozkion jarduerak gauzatzeko.

Osasun-zaintzaren jarduera urteko osasun-azterketen eta hitzordu-egutegiaren programazioaren arabera egingo da. Esleipendunak eta Udaleko Pertsonaleko Departamentuak elkarrekin koordinatuta egingo dituzte azterketa medikoen hitzorduak. Hitzordu horiek urtearen hasieran proposatuko ditu enpresa esleipenduak. Enpresa esleipendunak hitzorduen egutegia bidaliko du, pertsonal sailak bete dezan. Bete ahala, enpresa esleipendunari entregatuko zaizkio.

Kanpoko prebentzio-zerbitzuak gauzatzen dituen jardueren URTEKO MEMORIA egingo du.

Osasun zaintza kolektiboari dagokionean: TXOSTEN EPIDEMIOLOGIKOA eta ERIKORTASUNekoa egingo du. Bertan, halaber, garatutako lanaren eta arriskuaren arabera, genero-ikuspegitik egindako azterketa ere jaso beharko da, hala badagokio. Txosten epidemiologikoaren azalpenak emango ditu adjudikazio-hartzaileak Osasun eta Sergurtasun Komitean. Langileen osasunaren zaintzaren eta arriskuen ebaluazioaren emaitzak irizpide epidemiologikoen arabera aztertuko dira. Era berean, lanbide-arriskuekiko esposizioaren eta

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

osasunerako kalteen artean egon daitezkeen erlazioak ere aztertu eta baldintzak hobetzeko neurriak proposatuko ditu, hala badagokio.

Legezko betebeharra duten azterketa-medikuen derrigorrezko probak behar dituzten lanpostuen zerrenda egin behar da.

Osasun-azterketa motak:

1.- Hasierako mediku-azterketak: langilea lanean hasten denean. Langilearen hasierako osasun-egoera aztertuko da, ikusteko ea egokia den egin behar duen lanerako; ea ezintasun bat duen, indarrean dauden protokoloen edo/eta araudiaren arabera; ea langilea bereziki sentibera gisa definitu behar den; eta zehazteko ea lanpostuan egokitzapenak egin behar diren.

Prebentzio-zerbitzuko osasun-langileek aztertu eta baloratu beharko dituzte zer arrisku dituzten emakume haurdunek edo erditu berriek, adingabeek edota hainbat arriskuren aurrean bereziki sentiberak diren langileek. Arrisku horiek aintzat hartuta, arriskuei buruzko txostena eta neurri egokiak proposatuko dituzte.

2.- Mediku-azterketak, lanpostu-aldaketagatik edo zereginak nabarmen aldatzeagatik: arrisku erantsirik dagoen baloratzeko. Informazio gisa, ikusi “Bergarako Udaleko langileen lanpostua egokitu edo aldatu beharra arautzeko araudia”.

3.- Aldizkako mediku-azterketak: aplikatu beharreko protokolo medikoen araberakoa izango da maiztasuna, baina, orokorrean, urtean osasun-azterketa bat egingo zaie langile guztiei. Protokolo medikoan maiztasun jakin bat jaso arren, langilearen egoeraren arabera maiztasun hori aldatu daiteke.

4.- Luzaroan lanetik kanpo egon ondoren berriro lanean hastean egiten diren osasun-azterketek postuan egokitzapenak egin behar diren baloratu behar dute.

Azterketa medikoak astelehenetik ostiralera egitea eskatu ahal izango da (baita abuztuan edo oporralditzat har daitekeen beste edozein alditan ere), jaiegunetan, abuztuan, aste santuan eta gabonetan izan ezik (abenduaren 24tik urtarrilaren 1era).

**Azken hiru ekitaldietako datuen arabera, Osasun Zaintza Zerbitzuak urte bakoitzeko artatutako langileen batez bestekoa, gutxi gorabehera, 190 ingurukoa da.*

<u>Osasun azterketen</u> GUTXIENEKO edukia:

Osasun-azterketetan, gutxienez honako proba hauek egingo dira:

¬ Anamnesia

¬ Esplorazio klinikoa: neurologikoa; kardiobaskularra; arnas aparatukoa, abdominala, osteoartikularra eta protokoloetan jasotako proba espezifikoak.

¬ Azterketa osagarriak: audiometria; otoskopia; ikusmenaren kontrola; ikusmen kromatikoa; pisua eta garaiera; elektrokardiograma; presio arteriala.

Aplikatu beharreko protokoloen arabera, honako hauek egin beharko dira: espirometria; tonometria; torax, sudur-sinu edo lunbarretako erradiologia, eta abar.

¬ Odol eta gernu analisiak: Honako hauek sartuko dira gutxienez:

* ODOLA: Hematieen eta leukozitoen zenbaketa, hematokritoa, hemoglobina, leukozito-formula, V.S.G. eta Katz Indizea, VCM, HCM, CMHC eta plaketak. Burdinaren analisia (FE) emakumeei (*90 emakume gaur egun*).

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

∗ BIOKIMIKA: Glukosa, kreatina, azido urikoa, kolesterola (HDL, LDL, TRIGLIZERIDOAK, INDIZE ATEROGENIKOA), GOT, GPT eta CGT.

∗ GERNUA: Ph, proteinak, glukosa, gorputz zetonikoak, urobilinogenoa, bilirrubina eta gernu-sedimentua.

∗ TUMOREEN MARKATZAILEAK (*50 urtetik gorako gizonei, 55 langile guztira*) PSA

¬ Gainera, honako hauek ere:

∗ Analisi bereziak egitea langileen kolektibo jakin batzuei (*40 langile gutxi gorabehera: kale-garbiketako langileak, ur zerbitzuko langileak, lorezainak eta mendiko zerbitzuko langileak eta udaltzainak*). Udalarekin adosten diren protokolo espezifikoetan finkatuko dira horiek, lanpostu bakoitzaren arrisku mailaren arabera. Honelakoak izango dira analisi horiek:

- B hepatitisaren analisia (Anti HBsAg; Ac HBs; Ac HBc)
- VIH markatzaile birikoak

∗ Amiantoaren azterketa espezifikoa ur zerbitzuko brigadan lan egiten duten langileei (informazio gisara, gaurko egunez bost langile daude).

∗ Langile bakoitzari ematen zaion osasun-txosten pertsonalizatuan eta konfidentzialean, honako hauek jasoko dira: probetan lortutako emaitzak eta, gainera, detektatutako asaldurak, osasuna zaintzeko aholkuak eta gomendioak, eta langileari komeni ote zaion espezialista jakin batzuengana joatea. Emaitza aplikazio informatiko baten bidez edo emandako helbide elektroniko batera zuzendutako mezu baten bidez eman beharko da.

∗ Honela badagokio, osasun-zaintzaren zerbitzuaren aurreko adjudikazio-hartzaileak dituen banakako historial medikoak jaso eta gordetzea, eta, edonola ere, osasun-datuekiko aginduzko konfidentzialtasunerako bete beharreko segurtasun-neurriak hartzea, indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera, bai historial medikoak eratzerakoan, bai edozein motatako ustiapen estatistikotan.

∗ Bestaldetik, langilea lanerako GAI, EZ GAI, GAI MUGEKIN eta abar den adierazten duten txostenak udalari bidali eta jakinaraziko zaizkio. Osasun-azterketaren emaitza EZ GAI edo GAI MUGEKIN bada, hori berehala jakinarazi beharko da txosten osagarri baten bidez, non langilea zerbitzua egiten ari deneko lanpostuaren berezko zereginak zehazki deskribatuko diren, haren osasun-egoeraren gaineko eragina dela-eta zeregin horietako zeintzuk egin ezin dituen adierazita eta baita zeregin horiek egiteko mugak ere, lanpostua egokitu ahal izateko.

3. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Odol-ateratze kolektiboak Udal eraikinetan egingo dira, Pertsonaleko Departamentuarekin adostutako egunetan eta baldintzetan. Osasun-azterketak, berriz, enpresa esleipenduna titularra den osasun-zentroetan egingo dira. Osasun-zentroek OSALANek emandako baimen sanitario administratiboa eduki behar dute. Ildo horretan, adjudikazio-hartzaileak derrigorrezkoa izango du 90/2023 Dekretua betetzea (ekainaren 20koa, Prebentzio-zerbitzuen jarduera sanitarioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-sisteman laneko medikuntzari buruzko auditoretzak egiteari buruzkoa).

Osasun-zentroaren kokalekuak ez du esan nahi, inondik ere, sustraitzearen irizpidea sartzen denik; aitzitik, ezinbesteko baldintza da kontratuaren bideragarritasunerako: ezin da bermatu udal langileen laneko osasun-azterketak behar bezala eta denbora eta epe egokietan egingo direla baldin eta

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

enpresak –bere egoitza soziala edozein izanda ere– ez badu era horretako osasun-zentro baimendurik **Bergarako San Martin Agirre plazatik 25 km baino gutxiagora**.

Odol ateratzeak udal instalazioetan (kontrakorik erabaki ezean, udal liburutegian) egingo dira.

Plegu hauetan zehaztutako funtzioak eta kontrolak bermatzeko behar diren baliabide tekniko guztiak izango dituzte osasun-zentroetako instalazioek. Esleipenduna arduratuko da instalazioak berritzeaz eta araudi aplikagarriak une bakoitzean eskatzen duenera egokitzeaz.

Honako osasun-langile hauek izango ditu gutxienez:

¬ Laneko medikuntzan espezializatutako mediku bat.

¬ Enpresako ATS/DUE bat.

Bi profesional horiek behar bezala identifikatuta egongo dira kontratuaren hasieran. Kontratuaren esparruan jarritako funtzioak betetzeko prestasun osoa edukiko dute, eta Bergarako Udalaren zein Udal Euskaltegiaren erreferente izango dira alor horretan, baita lan-agintaritza eskudunaren aurrean ere.

Kontratuaren xedea burutzeko, kontratu-hartzaileak beharrezko giza baliabide guztiak izan beharko ditu, kontratuaren xedea zuzen garatzeko modukoak, eta kontratu-hartzailearen ardura izango da langile horiekiko duen harreman juridikoa edo laborala, eta baita kontratuaren xedea zuzen eta eraginkortasunez emateko beharrezkoak liratekeen langileen ordezkapenak egitea ere.

4.- HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK

Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana onartuta dauka (2023-05-22an) eta udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara da; hortaz, subkontratatutako enpresak zerbitzuari atxikita Udalarekin dituen harremanak euskaraz bideratuko dira.

Horiek guztiak erreferentzia gisa hartuta, kontratazio honetan ondorengo irizpideak kontuan hartu beharko dira hizkuntzari dagokionez:

1.- Zerbitzua emango duen pertsonalak bete beharreko baldintzak

Bergarako Udalarekin eta Udal Euskaltegiarekin harremana izango duten neurrian, udal langileekin harremanetan izango diren langileek (medikuak eta erizainak) euskaraz jakitea baloratu edo eskatu egingo da.

- Medikuaren kasuan enpresak lizitazio fasean konpromisoa hartzen badu udal langileei urtean behin egiten zaizkien azterketa medikuak egiteko garaian zerbitzua emango duen medikuak euskaraz ahoz C1 eta idatziz B2 gaitasuna izango duela (konpromisoa idatziz jasota) 5 puntu emango zaio enpresari. Eta errekonozimenduekin hasi aurretik medikuaren euskara gaitasuna ziurtatzeko agiriak aurkeztu edo dagokion froga egin beharko du. Eta konpromisoa hartu duen enpresak baldintza hau betetzen ez badu, 2.000 euroko isuna jarriko zaio.
- Erizainaren kasuan, kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duen erizainak euskarazko ahozko C1 gaitasun maila eta idatzizko B2 maila daukala.

  Behin eskaintza onuragarriena aitortuta, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari egindako errekerimenduaren ostean egiaztatu beharko du hizkuntza gaitasuna.

  Plegu honetan zehaztutako zerbitzua emateko lizitatzaileak proposatu dituen pertsonek ez badituzte betetzen atal honetako baldintzak beste pertsona batzuk aurkeztu beharko ditu

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

hiru egun balioduneko epean. Azken hauei ere dagozkion probak egingo zaizkie, eta langile horiek ere ez badituzte probak gainditzen, Udalak hurrengo lizitatzaileari egingo dio errekerimendua.

Aurkeztutako eta onartutako lizitatzaile batek ere ez badu egiaztatzen zerbitzua emango duten langileek eskatutako euskara-maila dutenik, adjudikazioa eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailearen alde egingo da.

Era berean, behin kontratua exekutatzen egonda, zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horrek/horiek ere euskara-gaitasuna egiaztatu beharko du/dute, aipatutako bi bide horietako bat erabilita.

Euskara-gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak(ek) eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak edo Udal Euskaltegiak erabakitako froga egitea. Kasu hauetan, lizitatzaile guztien eskubideak errespetatze aldera, ahozko probak grabatu egingo dira, eta gordeta egongo dira aplikagarri den araudiak aurreikusitako errekurtsoak aurkezteko aukera dagoen denbora osoan zehar.

2.- Hizkuntzaren erabilera eta kalitatea

Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, enpresak zerbitzuari lotuta Udalean aurkeztu behar dituen txostenak euskaraz bideratuko dira:

- Txosten medikuak (errekonozimenduko txostenak).
- Memoria epidemiologikoa
- Lanpostuaren egokitzapenari buruzko txostenak.

Gainontzeko testuak (komunikazioak, inprimakiak, dokumentu teknikoak…) euskaraz edo elebitan idatziko dira.

Kontratuaren xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta udal langile gehienek euskara ulertzen dutela kontuan hartuta, langileei urtean behin egiten zaien errekonozimendu eta analisien ohiko zerbitzu-hizkuntza euskara izango da. Hau da: hasierako harremana euskaraz bideratuko da eta langileari aukera emango zaio idatziak elebitan eskatzeko edo ahozko zerbitzua gaztelaniaz eskatzeko. Eta euskaraz eta gaztelaniaz behar diren dokumentuak enpresak berak itzuliko ditu.

Ahoz zein idatziz erabiliko den **euskararen kalitatea (zuzentasuna, ulergarritasuna...) bermatu beharko da**. Zalantzarik izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuak emango ditu behar diren aholkuak.

Bergarako Udalak hizkuntzaren erabilerari edo kalitateari dagokionez kontratuan ezarritako baldintzen ez-betetzeren bat edo zuzendu beharreko alderdiren bat antzemanez gero, Kontratuaren Arduradunak horren berri emango dio adjudikaziodunaren ordezkariari, posta elektroniko bidez, antzemandako gorabeherak eta egin beharreko zuzenketak zehaztuz.

Jakinarazpena egin eta 10 egun balioduneko epean adjudikaziodunak ez badu erantzunik ematen edo ez baditu eskatutako zuzenketak egiten, Udalak errekerimendu formala egingo dio, eta bertan ez-betetzea zuzentzeko edo dagokion hizkuntza-irizpidea betetzeko epe arrazoizko bat ezarriko da.

Emandako epea igaro eta adjudikaziodunak ez badu ez-betetzea zuzendu, egoera hori ez-betetze arintzat joko da eta, hala badagokio, plegu honetan aurreikusitako penalizazio- edo zigor-prozedura abiarazi ahal izango da.

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

Era berean, ez-betetze errepikatuak, hau da, kontratuaren indarraldian hiru ez-betetze arin edo gehiago gertatzea, ez-betetze larritzat hartu ahal izango dira, bereziki langileei zuzendutako ahozko arreta, dokumentazioa edo kontratuaren xedearekin lotutako komunikazioetan euskararen erabilera sistematikoki ez bermatzen denean.

3. Hizkuntzaren erabileraren jarraipena

Kontratazioaren ardura duen udal departamentuak egingo du finkatutako hizkuntza-baldintzen betetzearen jarraipena, Euskara Zerbitzuarekin adostutako ildoei jarraiki, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari.

5.- GENEROAREKIKO BETEBEHARRAK

Kontratazio honek nahitaez bete behar ditu Bergarako Udalak generoarekiko onartutako irizpideak.

Honela, kontratatutako lana egiteko genero ikuspuntua momenturo presente egon beharko da.

Erabiltzen den eta aurkezten diren dokumentazio guztietan (urteko programan, aurkezpen-idatzietan, inkesta-testuetan, txostenetan, urteko memorian, etab.) hizkera ez-sexistako irizpideak aplikatuko dira.

Komunikazio ez sexista ere erabili beharko du osasun pertsonalak.

**OSALANek dituen gidak oinarri bezala hartu daitezke helburu horiek lortzeko.*

Era berean, kontratuaren diseinuak eta exekuzioak genero-ikuspegia aintzat hartu beharko dute, diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan.

Azterlan guztietan datuak desagregatuak emango dira, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentziak identifikatuko dira eta genero-adierazleak sartuko dira, ezinbestean genero inpaktua neurtuz.

Asier García Aurrekoetxea
Lan Arriskuen Prebentzio teknikaria

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

Bergarako Udala

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

SERVICIO DE MEDICINA LABORAL PARA EL AYUNTAMIENTO DE BERGARA Y EL EUSKALTEGI MUNICIPAL

1.-OBJETO

Constituye objeto de la presente licitación la contratación de la especialidad de MEDICINA LABORAL, a fin de realizar dicha prestación mediante un servicio de prevención ajeno, tanto para el Ayuntamiento de Bergara como para el Euskaltegi de Bergara dependiente del mismo.

A efectos informativos, junto con los presentes pliegos se publica en el Perfil de Contratante la información correspondiente al personal del Ayuntamiento y al del Euskaltegi Municipal.

2.- SERVICIOS A PRESTAR

La empresa adjudicataria deberá desarrollar la especialidad de Medicina del Trabajo (Vigilancia de la Salud) al amparo de lo establecido en las siguientes leyes y real decretos: Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales (con todas sus modificaciones y normas de desarrollo posteriores); Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención; y Real Decreto 843/2011, de 17 de junio, por el que se establecen los criterios básicos sobre la organización de recursos para desarrollar la actividad sanitaria de los Servicios de Prevención.

El servicio se prestará el área de vigilancia de la salud: los puestos de trabajo existentes en la empresa; los riesgos de cada puesto de trabajo; la persona trabajadora que lo ocupe; y los protocolos específicos aplicables a cada persona trabajadora en función del puesto de trabajo de que se trate y de los riesgos laborales del mismo (incluidas las pruebas que correspondan).

Se tendrá en cuenta la desagregación de datos por sexos, la segregación horizontal y vertical en el ámbito laboral, e incorporará los correspondientes indicadores de género. Además de los indicadores de género, deberán incluirse otras variables (edad, origen, diversidad funcional...).

La entidad adjudicataria deberá presentar la PLANIFICACIÓN y PROGRAMA del área de la Medicina del trabajo, para llevar a cabo las actuaciones relativas a la vigilancia de la salud de las personas trabajadoras.

La actividad de vigilancia de la salud se realizará de acuerdo con la programación de los reconocimientos médicos anuales y del calendario de citas. Las citas de los reconocimientos médicos se concertarán de forma coordinada entre la empresa adjudicataria y el Departamento Municipal de Personal. Estas citas serán propuestas a principios de año por la empresa adjudicataria. La empresa adjudicataria enviará el calendario de citas para su cumplimentación por el departamento de personal. A medida que se vayan cumplimentando se irán entregando a la empresa adjudicataria.

El servicio de prevención ajeno elaborará una MEMORIA ANUAL de las actividades realizadas.

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

En materia de vigilancia sanitaria colectiva, elaborará un INFORME EPIDEMIOLÓGICO y de MORBILIDAD, en el que deberá incluir también, en su caso, un análisis desde la perspectiva de género en función del trabajo desarrollado y su riesgo. La adjudicataria expondrá en el Comité de Salud y Seguridad el informe epidemiológico. Los resultados de la vigilancia de salud del personal y de la evaluación de riesgos se analizarán según criterios epidemiológicos. Asimismo, se analizarán las relaciones que pudiera haber entre la exposición a riesgos profesionales y los daños a la salud, proponiendo en su caso medidas para mejorar las condiciones.

Elaborar una relación de puestos de trabajo que requieren pruebas preceptivas en reconocimientos médicos legalmente obligatorios.

Tipos de reconocimientos médicos:

1.- Reconocimientos médicos iniciales: al incorporarse al trabajo la persona empleada. Se evaluará el estado de salud inicial de la persona al objeto de considerar si se adecúa al trabajo que ha de desarrollar, si presenta alguna incapacidad conforme a los protocolos y/o normativa vigente, si se ha de definir como trabajador/a especialmente sensible y si se han de realizar adaptaciones en el puesto de trabajo.

El personal sanitario del Servicio de Prevención deberá analizar y valorar los riesgos de las mujeres embarazadas o de parto reciente, de las personas menores de edad o del personal especialmente sensible a determinados riesgos. Teniendo en cuenta dichos riesgos, elaborarán un informe de riesgos proponiendo las medidas adecuadas.

2.-Reconocimientos médicos por cambio de puesto o por modificación sustancial de tareas, a fin de valorar la existencia de riesgo añadido. A efectos informativos, consúltese la Normativa Reguladora de la Adaptación o Cambio de Puesto de Trabajo del Personal del Ayuntamiento De Bergara.

3.- Reconocimientos médicos periódicos: la periodicidad vendrá marcada por los protocolos médicos aplicables, si bien, con carácter general, el conjunto del personal trabajador se someterá a un reconocimiento anual. Aunque en el protocolo médico se recoja una determinada frecuencia, ésta puede variar en función del estado de la persona trabajadora.

4.- Los reconocimientos médicos que se realicen en el momento de la reincorporación tras una ausencia prolongada del trabajo deben valorar la necesidad de realizar adaptaciones en el puesto.

Se podrá solicitar la realización de reconocimientos médicos de lunes a viernes (incluso en agosto o en cualquier otro periodo que pueda considerarse vacacional), excepto festivos, agosto, semana santa y periodo navideño (del 24 de diciembre a 1 de enero).

**Conforme a los datos de los tres últimos ejercicios, la media aproximada de las personas trabajadoras atendidas cada año por el Servicio de Vigilancia de la Salud es de 190.*

<u>Contenido MÍNIMO de los exámenes de salud:</u>

Los reconocimientos médicos incluirán como mínimo las siguientes pruebas: ¬ Anamnesis¬ Exploración clínica: neurológica; cardiovascular; aparato respiratorio, abdominal, osteoarticular y las pruebas específicas establecidas en protocolos.¬ Exploraciones complementarias: audiometría; otoscopia; control de visión; visión cromática; peso y talla; electrocardiograma; tensión arterial.

¬ Análisis de sangre y orina: Incluirán como mínimo lo siguiente:

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

∗ SANGRE: Recuento de hematíes y leucocitos, hematocrito, hemoglobina, fórmula leucocitaria, V.S.G. e Índice de Katz, VCM, HCM, CMHC y plaquetas. Análisis de hierro (FE) a las mujeres *(actualmente 90 mujeres).*

∗ BIOQUÍMICA: Glucosa, creatina, ácido úrico, colesterol (HDL, LDL, TRIGLICERIDOS, ÍNDICE ATEROGÉNICO), GOT, GPT y GGT.

∗ ORINA: Ph, proteínas, glucosa, cuerpos cetónicos, urobilinógeno, bilirrubina y sedimento urinario.

∗ MARCADORES TUMORALES *(hombres mayores de 55 años, en total 55 trabajadores)* PSA

¬ Además, los siguientes:

∗ Análisis especiales a determinados colectivos del personal (*aproximadamente 40 personas trabajadoras: personal de limpieza viaria, del servicio de aguas, personal jardinero y del servicio de montes y policías municipales)*. Análisis que quedarán establecidos en los protocolos específicos que se acuerden con el ayuntamiento, en función del perfil de riesgo de cada puesto de trabajo. Dichas analíticas serán de los siguientes tipos:

- Análisis de hepatitis B (Anti HBsAg; Ac HBs; Ac HBc)
- Marcadores víricos VIH

∗ Estudio específico del amianto en el personal que trabaja en la brigada del servicio de aguas (a título informativo, en la actualidad hay cinco personas).

∗ En el informe de salud personalizado y confidencial que se entregue a cada trabajador/a, se recogerán los resultados obtenidos en las distintas pruebas, las posibles alteraciones detectadas, consejos y recomendaciones para el cuidado de la salud, así como la indicación de la conveniencia de que dicha persona acuda a determinado/s especialista/s. El resultado deberá ser facilitado mediante una aplicación informática o mensaje dirigido a una dirección de correo electrónico facilitada.

∗ Recibir y custodiar, en su caso, los historiales médicos individuales de la anterior empresa adjudicataria del servicio de vigilancia de la salud, y en todo caso, disponer en los términos establecidos por la normativa vigente las medidas de seguridad necesarias para la preceptiva confidencialidad de los datos de salud tanto en la formación de los historiales médicos como en toda suerte de explotación estadística.

∗ Por otro lado, los informes en los que se indica si la persona trabajadora es APTA para el trabajo, NO APTA, APTA CON LIMITACIONES, etc. serán remitidos y comunicados al ayuntamiento. En caso de que el resultado del reconocimiento médico sea NO APTA o APTA CON LIMITACIONES, se deberá comunicar de forma inmediata mediante un informe complementario en el que se describan detalladamente las tareas propias del puesto de trabajo en el que la persona trabajadora esté prestando servicio, con indicación de cuáles de dichas tareas no puede realizar por su incidencia sobre su estado de salud, así como las limitaciones para su realización, a fin de poder adecuar el puesto de trabajo.

3. MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES

Los reconocimientos médicos, por su parte, se realizarán en los centros sanitarios de los que sea titular la empresa adjudicataria. Los centros sanitarios deberán contar con la autorización sanitaria administrativa expedida por OSALAN. En este sentido, la empresa adjudicataria estará obligada al

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

cumplimiento del Decreto 90/2023, de 20 de junio, sobre actuaciones sanitarias de los servicios de prevención y sobre la realización de auditorías referentes a la medicina del trabajo en el sistema de prevención en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La ubicación del centro médico en ningún caso supone introducir criterio de arraigo, sino que es un requisito imprescindible para la viabilidad del propio contrato: no será posible garantizar adecuadamente los reconocimientos de salud laboral de las personas empleadas en los tiempos y plazos adecuados si la empresa, sea cual sea su sede social, no dispone de centros sanitarios autorizados de estas características **a menos de 25 km desde la plaza San Martin Agirre de Bergara**.

Las extracciones de sangre se realizarán en las instalaciones municipales (salvo acuerdo en contrario, en la biblioteca municipal).

Las instalaciones de los centros sanitarios dispondrán de todos los medios técnicos necesarios para garantizar las funciones y controles especificados en los presentes pliegos. Será responsabilidad de la adjudicataria la renovación de las instalaciones y su adecuación a lo exigido en cada momento por la normativa aplicable.

El personal sanitario mínimo disponible será:

- Un/a médico/a especialista en medicina del trabajo.
- Un/a ATS/DUE de empresa.

Ambos/as profesionales deberán estar adecuadamente identificados/as al inicio del contrato y deberán contar con absoluta disponibilidad para desarrollar las funciones establecidas en el marco del mismo, siendo el referente del Ayuntamiento de Bergara y del Euskaltegi Municipal en la materia, incluso ante la autoridad laboral competente.

De cara a la ejecución del objeto del contrato, la empresa contratante deberá disponer de todos los recursos humanos necesarios para ello, siendo de su competencia la relación jurídica o laboral de dicho personal y las sustituciones de personas que pudieran ser necesarias para la correcta y eficaz prestación del objeto del contrato.

4.- REQUISITOS LINGÜÍSTICOS

El Ayuntamiento de Bergara tiene aprobado el Plan de Promoción de Uso del Euskera (el 22-05-2023) y la lengua de trabajo habitual del ayuntamiento es el euskera, por lo que las relaciones de la empresa subcontratada con el ayuntamiento en relación al servicio se canalizarán en euskera.

Tomando como referencia todo ello, en la presente contratación, en relación con el euskera se deberán tomar en cuenta los siguientes criterios:

1.- Requisitos a cumplir por el personal prestatario del servicio

En la medida en que van a tener relación con el Ayuntamiento de Bergara y con el Euskaltegi Municipal, se valorará o requerirá que el personal (médico y de enfermería) que se relacione con el personal municipal sepa euskera.

- En el caso del personal médico, si en la fase de licitación la empresa adquiere el compromiso, por escrito, de que, en la realización de los reconocimientos médicos anuales al personal municipal, el/la médico/a que vaya a prestar sus servicios tendrá competencia oral C1 y escrita B2, la empresa obtendrá 5 puntos, para lo cual, antes de comenzar con los reconocimientos, deberá presentar la documentación acreditativa de la competencia en euskera del médico/a o realizar la prueba correspondiente. En caso de que la empresa que ha asumido el compromiso no lo cumpliere, se le impondrá una multa de 2.000 euros.

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

- En el caso del personal de enfermería, antes de adjudicarse el contrato, la empresa deberá acreditar que el/la enfermero/a que vaya a prestar el servicio tiene un nivel de competencia oral C1 y escrita B2.

  Una vez declarada la oferta más ventajosa y realizado el requerimiento a la licitadora que la haya presentado, deberá acreditar la competencia lingüística.

  En caso de que las personas propuestas por la licitadora para la prestación del servicio establecido en el presente pliego no cumplan los requisitos de este apartado, deberá presentar a otras personas en un plazo de tres días. A estas últimas también se les realizarán las correspondientes pruebas y si tampoco superan las mismas, el ayuntamiento realizará el requerimiento a la siguiente empresa.

  Si ninguna de las licitadoras presentadas y admitidas acredita el nivel de euskera exigido para el personal que vaya a prestar el servicio, la adjudicación se realizará a favor de la licitadora que haya presentado la oferta más ventajosa.

  Así mismo, una vez que se esté ejecutando el contrato, si se incorporan nuevas personas para la prestación del servicio, estas también deberán acreditar su competencia lingüística en euskera a través de alguno de los dos medios mencionados.

La acreditación de la competencia de euskera podrá hacerse de las dos maneras siguientes:

- Presentación de un documento que acredite que la(s) persona(s) que prestará(n) el servicio tiene(n) la competencia lingüística exigida.
- Realizar la prueba que determine el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara o el Euskaltegi Municipal. En estos casos, y con el fin de respetar los derechos de todas las licitadoras, las pruebas orales serán grabadas y conservadas durante todo el periodo de tiempo en que sea posible interponer los recursos contemplados en la normativa aplicable.

2.- Uso y calidad del idioma:

Siendo el euskera la lengua habitual de trabajo del Ayuntamiento, los informes que la empresa deba presentar en relación con el servicio se realizarán en euskera:

- Informes médicos (informes de reconocimiento).
- Memoria epidemiológica
- Informes sobre la adaptación del puesto.

Los demás textos (comunicaciones, impresos, documentos técnicos…) se redactarán en euskera o en bilingüe.

Teniendo en cuenta las características de la prestación objeto del contrato y que la mayoría del personal municipal entiende el euskera, la lengua de servicio habitual será el euskera, garantizándose en todo caso los derechos lingüísticos de las personas destinatarias. Es decir, la relación inicial se mantendrá en euskera y se ofrecerá a la persona trabajadora la posibilidad de solicitar los escritos en bilingüe o el servicio oral en castellano. Los documentos que se precisen en euskera y castellano serán traducidos por la propia empresa.

Se deberá garantizar la calidad del euskera utilizado (su corrección, comprensión...), tanto a nivel oral como escrito. Ante cualquier duda, el Servicio Municipal de Euskera facilitará el asesoramiento necesario.

En caso de que el Ayuntamiento de Bergara detectara algún incumplimiento o aspecto susceptible de corrección en relación con el uso o la calidad lingüística establecidos en el contrato, la Persona Responsable del Contrato lo comunicará a la persona representante de la

ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b

adjudicataria mediante correo electrónico, indicando las incidencias detectadas y las correcciones que procedan.

Si, transcurrido un plazo de 10 días hábiles desde la comunicación, la adjudicataria no hubiera respondido o no hubiera realizado las correcciones requeridas, el Ayuntamiento efectuará un requerimiento formal, en el que se establecerá un plazo razonable para subsanar el incumplimiento o dar cumplimiento al criterio lingüístico correspondiente.

Si una vez transcurrido el plazo otorgado la adjudicataria no hubiera corregido el incumplimiento, dicha situación tendrá la consideración de incumplimiento leve y, en su caso, podrá iniciarse el correspondiente procedimiento de penalización o sanción previsto en el presente pliego.

Asimismo, los incumplimientos reiterados, entendiéndose por tales la concurrencia de tres o más incumplimientos leves durante la vigencia del contrato, podrán ser considerados incumplimientos graves, especialmente cuando no se garantice de forma sistemática el uso del euskera en la atención oral, documentación o comunicaciones vinculadas al objeto del contrato.

3. Seguimiento del uso del idioma

El seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos establecidos lo realizará el servicio municipal responsable de la contratación, de conformidad con las líneas acordadas con el Servicio de Euskera, al cual dará cuenta de todo ello.

5.- REQUISITOS EN CUANTO A GÉNERO

Esta contratación deberá cumplir obligatoriamente los criterios que en materia de género tiene aprobados el Ayuntamiento de Bergara.

Así pues, la perspectiva de género si procede deberá estar presente en todo momento durante la ejecución del trabajo contratado.

En toda la documentación utilizada y presentada (programa anual, escritos de presentación, textos del cuestionario, informes, memoria anual, etc.), se deberán aplicar los criterios de lenguaje no sexista.

El personal sanitario deberá hacer un uso no sexista en la comunicación.

**Las guías de OSALAN pueden servir de base para la consecución de estos objetivos.*

En el mismo sentido, el diseño y la ejecución contractual deberán contemplar la perspectiva de género en su diagnóstico, objetivos, actividades y evaluación.

En todos los estudios se desglosarán los datos desagregados, se identificarán las desigualdades entre mujeres y hombres y se incorporarán indicadores de género. Midiendo inevitablemente el impacto de género.

Asier García Aurrekoetxea
Lan Arriskuen Prebentzio teknikaria

EKS | CSV: ESKU5b461587-ef5c-46ff-91bf-195d1110af3b
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410